



NEGU
GORRIAK

AMODIOZKO
KANTA


MAITE ZAITUT
NIRE POLTSAREKIN
AUTOBUSERA ABIATZEN
NAIZEN BAKOITZEAN



MAITE ZAITUT
BIDAIA LUZE HORRETAN
LOAK EZIN HARTUZ



MAITE ZAITUT NIREA EZ DEN
HERRI BATEAN KAFESNEA
HARTZERAKOAN



MAITE ZAITUT, HORMA GRISAK
IKUSTEN ETA ZENBAKIA
EMATEN DIDATENEAN

MAITE ZAITUT
KARNETA ERAKUSTERAKOAN
MIATZEN NAUTEN BITARTEAN

MAITE ZAITUT
BI METRO KARRATUETAN
ESERITA ITXAROTEN
DUDANEAN



MAITE ZAITUT AGERTU ETA
BEGIEKIN DENA ADIERAZTEN
DIDAZUNEAN

MAITE ZAITUT ZURE ESKUA
IKUTU BEHARREAN KRISTAL
LODIA FEREKATZEN DUDANEAN

MAITE ZAITUT BISITAK
IRAUTEN DUEN
BERROGEITA HAMABOST
MINUTUAK



ZERRAILA HOTSAK, BESTE HILABETE IKUSI GABE
GOGORATZEN DIDANEAN. BESTE KANTA IDATZ
NEZAKE BAINA NAHIAGO DUT NEKATUTA EGOTEA

ETA ESALDIA, NEKATZEN EZ
ZAITUENA BESTE HAMAIKA
ALDIZ ERREPIKATUKO DIZUT



ETA AMETSETAN MAITE ZAITUT LAZTANA
XABIERREN OLERKI OBSESIBO BAT BEZALA
SARRIK MOLDATUTAKO NARRAZIO BAT BEZALA
ATXAGAREN OBABAKO IPUIN BAT BEZALA MIKELEN ISTORIO
ODOLTSU BAT BEZALA

ITZULTZENEA LIBURUA HARTU
BEZAIN LAISTER, LOAK HARTZEN
NAU ZUREKIN EGITEKO
AMETS



MAITE ZAITUT LAZTANA.

(AUPA FERMIN!) SI HAY QUE TOCAR LOS BOMBOS AVISA!

ERKIN